Artezlerik ez dagoenean, haren egitekoez ere arduratuko da.

ARTEZLEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Errealizazioa eta antzezpen-platoa koordinatzea da profesional honen egiteko nagusia, grabazioa edo zuzeneko emisioa aldez aurretik ezarritako produkzio-planaren araberakoa izan dadin.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

ZUZENeko ARDURADUN HIERARKIKOA

- Produktorea edo produkzio-laguntzailea, produktoreak eskuordetuta.
- Errealizadorea edo errealizazioko laguntzailea.

EGITEKO NAGUSIAK

Grabatutako edo zuzeneko programetan, errealizazio-taldearekin kolaboratzen du. Antzezpen-platoa zuzentzen du programaren prestaketa egitean (antzeztaldeari, entseguei eta errealizazio-planari dagozkion funtzioetan) grabatu bitartean eta zuzeneko emisioa egitean, errealizadorearen edo errealizazioko laguntzailearen jarraibideei jarraikiz, dena garaiz prest egon dadin, beharrezko zerbitzu guztiekin, apainketari, argiztapenari, langileei, gonbidatuei, publikoari, bitartekoei eta abarri dagokienez.

Produktoreari edo produkzioko laguntzaileari lagunduko dio eta haiekin koordinatuko da produkzio-plana erdiesteko beharrezko bitartekoak lortzeko egitekoei dagokienez. Monitoreak eta pantailak piztuko ditu platoan, eta gehienez ere 3 pertsonari mikrofonoa jarriko eta piztuko die platoan, funtzio horietarako langilerik ez badago.

Txosten bat idatziko du grabazioaren edo emisioaren amaieran, eta bertan jasoko du antzezpen-platoan gertatutako guztia.

Dekoratu bakoitzean beharrezkoak diren atrezzo-objektuak eta/edo altzari-elementuak muntatu eta desmuntatuko ditu, baldin eta horiek manipulatzeko eta garraiatzeko pertsona bat baino gehiago behar ez bada.

KANPO-PRODUKZIOAREN PLANIFIKATZAILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional hau arduratzen da hirugarrenei erositako materialak jasotzeaz, emisiorako beharrezko barne-prozesuen planifikazioaz eta jarraipenaz eta aurreko guztiarekin lotutako fakturazioa kontrolatzeaz.

KARGUPEKO LANGILEAK

Planifikazioko laguntzailea

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

- Kanpo-produkzioko arduraduna
- Kanpo-produkzioko departamentuko produktorea

EGITEKO NAGUSIAK

Hirugarrenei erositako materiala jasotzeko ardura du, eta material hori kontratuko baldintzen araberakoa dela egiaztatuko du.

Material horri aplikatu beharreko tarteko prozesuak planifikatzen ditu (kopiaketak, bikoizketak, azpidazketak, etab.) eta horiek egiten direla zaintzen du, dela ETBn bertan edo kanpoan, etengabeko jarraipena eginez.

Material hori ziurtatzen du, hari buruzko informazio eguneratua du eta eskatzen zaizkion txosten guztiak ematen ditu.

Kanpoko bikoizketa- eta transferentzia-eskaerak egiten ditu.

Bikoizketen, azpidatzen, transferren, M+E sorkuntzen, M+E errefortzuen eta abarren fakturazioaz arduratzen da.

Tarifak negoziatzen ditu ezarritako kasuetan eta adostutako tarifa ofizialetan zehaztu gabekoetan.

KANPO-PRODUKZIOAREN PLANIFIKATZAILE LAGUNTZAILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honek kanpo-produkzioaren planifikatzaileari laguntzen dio kanpo-produkzioko lanak jaso, planifikatu eta horien jarraipena eta kontrola egiteko lanetan, kanpo-produkzioaren materialaren prozesuetan.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

- Kanpo-produkzioaren planifikatzailea
- Kanpo-produkzioko departamentuko produktorea

EGITEKO NAGUSIAK

Kanpo-produkzioko planifikazio-lanak egiten laguntzen du (kopiaketa, bikoizketa, azpidazketa, etab.). Horretarako, haren lan nagusia hirugarrenei erositako materialen sarrerak eta irteerak, garraioa, biltegiatzea, sailkapena eta kontserbazioa kontrolatzea da.

Jasotako materialaren kontrol-fitxa bat egiten du eta bertan adierazi behar dira sarrera-data, formatua, kalitatea, hornitzailea eta abar.

Emateko prest dauden programen artxiboko sarrera-orria prestatzen du, eta beste departamentu batzuen esku jarri.

ETBz kanpoko programen urte amaierako inbentarioa egiten laguntzen du.

Harremanetan dago hirugarrenekin (oro har, beste autonomia-erkidego batzuetako telebistak eta bikoizketa-estudioak) materialen bidalketa eta itzulketei, M+Eko errefortzuei, programen edizioei eta abarri buruz, eta dokumentu bidezko jarraipena egiten du.

Kanpo-produkzioaren planifikatzailearen lanak egingo ditu hura ez dagoenean, eta postu horren ardurak bere gain hartuko ditu.

KALITATE-KONTROLEKO TEKNIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honen ardura da ETBk emititu beharreko eta hirugarrenei transferitu beharreko programek bete behar dituzten kalitate-parametro teknikoak ezarri eta aplikatzea. Horretarako, bere esku jarritako bitarteko pertsonal eta teknikoak antolatu eta gainbegiratzen ditu, transferentzien edo formatu-aldaketen aretoko (telezinea) produkzioaren arduradun gisa.

KARGUPEKO LANGILEAK

Telezine- eta transferentzia-aretoko teknikariak.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Kanpo-produkzioko arduraduna eta/edo kanpo-produkzioko produktorea

EGITEKO NAGUSIAK

ETBk emititu eta hirugarrenei transferitutako programen kalitate teknikoaren arduraduna da. Horretarako, programa horiek bete behar dituzten parametro teknikoak eta kalitatea kontrolatzeko jarraibideak ezarriko ditu, eta berak gainbegiratuta egingo dira beharrezko kontrolak material horiek egiteko prozesuan.

Programa horien kalitate teknikoari buruzko fitxa bat idatziko du eta aurkitutako anomalien berri emango du, horiek konpon ditzaten. Hori egitean, akatsen onargarritasun-maila zehaztuko du.

Telezine- eta transferentzia-aretoko lan-karga koordinatu eta banatuko du.

Esleitutako ekipamendu teknikoa operagarria eta parametroen araberakoa izatea haren ardura izango da, bai eta ekipamendu hori eta elaborazio-prozesuak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea ere.

Beharrezko dokumentu eta fitxak idatzi, bete eta, dagokienean, artxibatu egingo ditu, telezine- eta transferentzia-aretoaren funtzionamendua eta kontrola behar bezalakoak izan daitezen.

Bere lana eraginkortasunez egin ahal izateko, ETBko beste departamentu batzuekin eta hirugarrenekin harremanetan egongo da eta irizpideak bateratuko ditu haiekin, aberien lehen analisia egingo du eta, dagokionean, beharrezko txostena bidaliko dio Mantentze-lanen eta Gainbegiraketa Teknikoaren Departamentuari.

Peritazio teknikoak eta kalitatea bermatzekoak egingo ditu beharrezkoa denean eta kanpoko ekoiztetxeen jarraibideen eta zerbitzuaren kalitatearen homologazioan parte hartuko du.

Operazio lanak gauzatu ditu, beharrezkoa denean.

IKUSKATZAILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honen ardura da telebistarako kanpoko programei buruzko informazioa biltzea eta mantentzea, horiek ikustea ETBren instalazioetan edo horik kanpo, txosten zehatzak idaztea eta hautaketa eta programazioa egiteko aholkularitza ematea.

Eginkizun horiek betetzean eta ordutegi-malgutasunari dagokionez, zuzenean aplikatuko da egungo Hitzarmen Kolektiboaren 18.5 artikulua.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

- Kanpo-produkzioko arduraduna
- Kanpo-produkzioko departamentuko produktorea

EGITEKO NAGUSIAK

Kanpo-produkzioko departamentuko arduradunaren jarraibideak betez, profesional honen ardura da telebista-programak ikuskatzea eta horiei buruzko txosten bat egitea ETBren programazio-irizpideen arabera diren adierazteko, bai eta beharrezko datuak ematea programa horiek deskribatzeko.

Merkatuko eskaintza ezagutzeko datuak bilduko ditu (aldizkariak, katalogoak, etab.) eta eskaintzaileekin harremanetan jarriko da eskaintza hobeto ezagutzeko asmoz.

Kanpo-produkzioko programen hautaketa eta programazioko aholkularitza emango du (filmak, serieak, dokumentalak, etab.).

Telebistako ikustaldietara eta merkatuetara joango da eta harremanetan egongo da bere funtzioak hobeto betetzeko beharrezko pertsonekin.

GRAFISTA-HONDOGILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Proiektu grafikoak (anagramak, logotipoak, irudiak, letra motak, marrazki bizidunak, mapak, grafikoak) eta atzeko irudiak sortu eta egiteaz arduratzen da.

KARGUPEKO LANGILEAK

Platoko laguntzailea, margolariak

ZUZENeko ARDURADUN HIERARKIKOA

- Plato-arduraduna
- Agertokiaren arduraduna

EGITEKO NAGUSIAK

Plato-arduradunarekin, agertokiaren arduradunarekin edo diseinatzailearekin, errealizadorearekin eta programaren zuzendariarekin koordinatuta eta haien jarraibideak beteta, atzeko irudiak, hondoak eta chroma key-rako irudiak eta bestelakoak diseinatu eta egiteaz arduratzen da. Horretarako, margolarien edo platoko laguntzaileen laguntza eskatu ahalko du. Gainera, dekoratuak margotzeko lanak ere egin ditzake.

Haren ardura izango da, halaber, behin betiko proiektua arauen, eskura jarritako bitarteko teknikoen eta ezarritako epeen araberakoa izatea.

Haren ardura da enpresak haren esku utzitako lan-elementuen erabilera egokia.

Baliteke kanpora joan behar izatea lanerako behar dituen materialak lortzera.

AGERTOKIKO AROTZA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Produkzioetarako dekoratuak ekoitzi, muntatu, desmuntatu eta mantentzeaz arduratzen da.

KARGUPEKO LANGILEAK

Platoko laguntzailea

ZUZENeko ARDURADUN HIERARKIKOA

Plato-arduraduna eta/edo agertokiaren arduraduna (antzeztoki-arduraduna)

EGITEKO NAGUSIAK

Planoak, zirriborroak, oinplanoak, altxaerak eta maketak zuzen interpretatzea eta banatzea aukera izateko, beharrezko kalkuluak egin ondoren, agertoki-arduradunak edo diseinatzaileek proiektatutako dekoratuak, osagarriak eta abar ekoizteko, pertsona horiek gainbegiratuta.

Kanpo-etxeei agindutako dekoratuen ekoizpen eta muntaketa gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Normalean, ETBren instalazioetara edo bertatik kanpora eramatea, muntatzea eta desmuntatzea lehen aldiz instalatzen diren dekoratuak eta, edonola ere, dekoratuen mantentze-lanak egitea. Dekoratuak ekoizteko lanik esleitu ez zaionean, dekoratuen muntaketa- eta desmuntaketa-lanetan parte hartuko du.

Beharrezko ikastaroak egin ostean, dekoratuak ekoizteko materialak modelatuko ditu (apargoma, porexpana, plastikoak, etab.). Horretarako beharrezko tresneria emango zaio.

Platoko laguntzaileen lanak gainbegiratzeaz eta koordinatzeaz arduratu ahal izango da.

Zur-biltegiaren arduraduna izango da. Horren kontrola eramanez, bai eta iristen den materialaren kalitatearen kontrola ere.

Platoko gainerako langileekin eta beste sail batzuetako langileekin koordinatu eta lankidetzan arituko da, beren lana egiteko.

Enpresak bere esku jarri dituen edo jartzen dituen erreminta, makina eta tresna guztiak – Arropa, oinetakoak eta segurtasun-elementuak barne – Mantentzeaz, garbitzeaz eta behar bezala erabiltzeaz arduratuko da, eta horiek hondatzen direla eta/edo gaizki erabiltzen direla edo falta direla zainduko eta ohartaraziko dio Platoko buruari.

Baliteke kanpora joan behar izatea lanerako behar duena eskuratzeko.

AGERTOKIKO MARGOLARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Haren ardura da margotzea, papereztatzea, imitazioak egitea, etab. Dekoratuak ekoizteko erabiltzen diren teknikak (girotzea, zahartzea, narriadurak, hezetasunak eta suak) ezagutzen ditu, bai eta elementu piktoriko eta intsonorizatzaileak ere.

KARGUPEKO LANGILEAK

Platoko laguntzailea

ZUZENeko ARDURADUN HIERARKIKOA

- Plato-arduraduna eta/edo agertokiaren arduraduna
- Funtzionalki grafista-hondogilea

EGITEKO NAGUSIAK

Zirriborro, plano edo xehetasunetan markatutako koloreen, testuren, girotzearen eta gainerako ezaugarrien interpretazio egokia egitea, agertokiaren arduradunen edo diseinatzaile eta grafisten jarraibideen arabera, dekoratuak, hondoak, beste norbaitek aurretik diseinatutako atzeko irudiak, osagarriak eta, oro har, dekoratuen parte den edozer pieza egitean, hala platoon nola kanpoan, dekoratuen diseinu eta ekoizpenean parte hartzen duten gainerako profesionalen koordinatuta eta horiekin elkarlanean arituta.

Kanpo-etxeei agindutako margoketa-lanak gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Haren ardura izango da, halaber, papereztatzea, oihaleztatzea, beruneztatzea eta, oro har, dekoratu batean beharrezko diren gainerako antzeko egitekoak gauzatzea.

Margo-biltegiaren arduraduna izango da. Biltegia kontrolatuko du, bai eta iristen den materialaren kalitatea ere.

Lanbidearen berezko tresneria guztiak mantendu, garbitu eta ondo erabiltzeaz arduratuko da, bai eta lan-lekua garbi mantentzeaz ere.

Biltegitik edo beste iturri batzuetatik jasotako elementu guztien helburu edo erabileraren arduraduna izango da, horien narriadura eta/edo egoera txarra zainduko du eta plato-arduradunari horren berri emango dio.

Baliteke kanpora joan behar izatea lanerako behar duena eskuratzeko.

ATTREZZOA (AGERTOKIKO OSAGARRIEN ARDURADUNA)**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Dekoraturako behar diren atrezzoko objektuak lortzeaz arduratzen da, bai eta horiek sailkatzeaz, ondo erabiltzen direla bermatzeaz, gordetzeaz eta, dagokionean, itzultzeaz ere.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Platoko laguntzailea.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Plato-arduraduna eta/edo agertokiaren arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Agertokiaren arduradunarekin batera, produkzio bakoitzaren gidoia aztertzen du eta, arduradun horren jarraibideak betez, altzariak, tapizeria-elementuak eta atrezzokoak hautatzen ditu. Goian deskribatutakoa erosten, alokatzen edo mailegatzen du, bai eta karakterizaziorako beharrezko diren jantziak, mozorroak, osagarriak eta gainerako elementuak ere. Grabazioetan izaten diren gabeziak eta larrialdiak konpontzen ditu. Atrezzo-elementu horiek kalean eskuratzen dituenek, inoiz eskatu ahal izango zaio joan-etorri horietan platoko departamentuko beste tailer eta sekzioetarako elementuak erosteko (burdineria, paperak, margoak, elementu elektrikoak, etab.).

Eskuratutako elementuen eta biltegitatzearen fitxa betetzen du. Fitxa horiek eguneratuta egongo dira, eta agertokiaren arduradunaren eta plato-arduradunaren esku jarri beharko dira eskatzen dituztenean.

Haren ardura da osagarriak estudioan ipintzea, jasotzea eta gordetzea, eta horretarako platoko laguntzaileen laguntza izan ahalko du.

Produktoria bideratutako osagarri guztiak kontrolatzen ditu eta ondo erabiltzen direla bermatzen du, eta bat falta denean edo narriatzen denean, plato-arduradunari ematen dio horren berri.

Kutxa txikiarekin egiten dituen erosketak guztiak zehaztasun osoz zenbatzen ditu, eta produktioakoei jakinarazten dizkie.

Osagarri guztiak jatorrira itzultzen ditu.

PLATOKO LAGUNTZAILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Dekoratuak, osagarriak eta abar garraiatzeaz, muntatzeaz, desmuntatzeaz eta mantentzeaz arduratzen da bai eta, oro har, ofizioko profesionalei laguntzeaz ere. Dekoratuak eta lan-lekuak garbitzeaz arduratzen da, halaber.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Plato-arduraduna.

Agertokiaren arduraduna, atrezzoko arduraduna, margolaria, arotza eta programa prestatzen edo programa estudioan zein kanpoan grabatzen parte hartzen duten ofizioko beste edozer profesional.

EGITEKO NAGUSIAK

Agertokiaren arduradunen edo arotzen jarraibideak betez, dekoratuak eta osagarriak muntatzeaz arduratzen da, hala ETBren estudioetan nola kanpoan. Gainera, horiek desmuntatu, konpondu, garraiatu eta biltegitatu beharko ditu, eta aldi bakoitzean platoa, dekoratuak berak eta platoko lan-lekuak garbituko ditu.

Errezelak, zikloramak eta, oro har, platoko departamentuaren ardurapeko elementu guztiak berrikustea, funtzionamendu- eta segurtasun-egoera ezin hobean daudela bermatuta eta plato-arduradunari jakinarazita edozer akats edo falta.

Plato-arduradunak agintzen dionean, arotz, margolari eta gainerako langileek behar duten laguntza ematea, baita agertokiko edo attrezzoko arduradunak agintzen diotenean ere.

Bere espezialitatearen eta prestakuntzaren arabera, eskatzen zaion beste edozer lan egingo du (errementaritzza, elektrizitatea, arotzeria, margoketak, tapizeria, elektronika, papereztatzea, eskultura, delineazioa, moketatzea, mekanika, plastikoa...).

Tresna, makina eta lanabesak mantentzeaz, garbitzeaz eta ondo erabiltzeaz arduratuko da, bertan sartutako enpresak bere esku utzitako arropa, oinetakoak eta norbera babesteko elementuak eta horien narriadura edo erabilera okerra ikusten badu, plato-arduradunari jakinaraziko dio.

Baliteke kanpora joan behar izatea platoko lanetarako behar diren materialak edo tresnak lortzera.

ANTZEZTOKI-ARDURADUNA***DESKRIBAPEN OROKORRA**

Dekoratu fisiko eta birtualak sortu eta diseinatzearen arduraduna da, bai eta dekoratuak eta horien osagarriak ekoitzi, muntatu, desmuntatu eta mantentzearena ere.

KARGUPEKO LANGILEAK

Platoan lan egiten duten gremioetako langileak eta horien laguntzaileak.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Plato-arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Plato-arduradunarekin programen zuzendariarekin eta/edo errealizadorearekin elkarlanean, horien ideiak proiektu batean islatzeaz eta hura garatzeaz arduratzen da.

Dekoratuaren aurrekontua prestatzeaz arduratzen da, esleitu zaizkion programetan.

Agertokiko espazioa sortzeko lanak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu eta, horretarako, lantaldeak koordinatzen ditu dekoratuak eraikitzeko, sistema birtualak egokitzeko, jantziak girotzeko, dekoratuak muntatzeko eta efektu bereziei, grafismoari eta abarri dagokienez.

Produktzio-departamentuak onartutako aurrekontuak errespetatzen direla bermatu behar du, bai eta programa bakoitzari esleitutako espazio fisikoa ere.

Ezarritako arau teknikoak errespetatzen direla bermatzearen arduraduna da. Horretarako, audio-teknikariaren, argiztatzailaren, produktzio ingeniariaren eta abarren laguntza izango du.

Baliteke programaren zuzendariak edo errealizadoreak jarraibideak ematea, plato-arduradunari jakinarazita. Haren ardura da enpresak haren esku utzitako lan-elementuen erabilera egokia.

PROIEKTUETAKO INGENIARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Epe labur, ertain eta luzeko inbertsio-proiektuekin lotutako alderdietan lan egiten duen profesionala da.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Mantentze-lan elektronikoetako teknikariak eta mantentze-lan orokorretako teknikariak, ekipamendu berria instalatu, jaso eta prestatzearekin lotutako egiteko zehatzetarako esleitzen zaizkionean.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Ingeniaritzako arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Ingeniaritzako arduradunak zuzenean gainbegiratuta edo hark aginduta, honako hauek dira egiteko nagusiak:

Teknologia berrien eta telebistako merkatuaren jarraipena egitea. Horretarako, informazio-iturriak eta bibliografia teknikoa aztertuko ditu eta informazio hori eguneratzeko beharrezko diren azoka, sinposio eta antzeko ekitaldi guztietara joango da.

Zehaztapen teknikoak, aurreproiektuak, txostenak, planoak, eskaintza-azterketak eta abar egitea, bai eta telebistako ekipamendu-instalazioen proiektuen garapenari buruzko material oro ere.

Aribidean diren proiektuen jarraipena egitea eta, agintzen zaionean, obra zuzentzeko lanak egitea.

Esleitzen zaizkion instalazio edo ekipamendu berrien doikuntzak egitea.

Ekipamendu berriak edo instalazio osoak jasotzeko proben protokoloak egitea.

Esleitzen zaizkion ekipamendu edo instalazio berriak hartzean egin beharreko proben arduraduna.

Ondoren, martxan diren instalazioen jarraipena egitea eta horiek aztertzea, horien prestazioak edo errendimendua hobetzarren.

Mantentze-lan elektronikoaren departamentuko teknikarien gaineko agente funtzionala izango du, esleitzen zaizkionean, ekipamendu edo instalazio berriak hartu edo doitzearekin lotutako lanak egiteko.

Mantentze-lan orokorren departamentuko teknikarien gaineko aginte funtzionala izango du, esleitzen zaizkionean, ekipamendu berriak instalatzearekin lotutako lanak egiteko.

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOETAKO 1. MAILAKO TEKNIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honek jarduera-esparrua ekipamendu elektronikoen mantentze-lanekin lotutako alderdi guztiek osatzen dute.

KARGUPEKO LANGILEAK

Mantentze-lan elektronikokoetako 2. mailako teknikaria eta mantentze-lan elektronikokoetako ofiziala, lan jakin baterako bat esleitzen zaionean.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Mantentze-lan elektronikoen arduraduna

EGITEKO NAGUSIAK

Mantentze-lan elektronikoen arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaion ekipamendu elektronikoen mantentze-lanez eta konponketez arduratuko da eta, beharrezkoa denean, prebentzioko mantentze-lanen planoak egingo ditu.

Bere jardueretarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

Mantentze-lanen alor batez arduratuko da. Horretarako, beharrezko ekintza guztiak egingo ditu eta kudeaketaren berri emango die bere arduradun hierarkikoei.

Elektronikarekin lotutako teknologia berrien jarraipena egingo du. Horretarako, lanik gabeko hutsarteak baliatuko ditu, eskura dituen bitartekoen bidez prestakuntza hobetzeko.

Zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean, beste lan-zentro, unitate mugikor, bulego eta abarretara joango da.

Beste arloetako arduradunen kontsultetan aholkularitza emango du, ekipamendu jakin bat erabiltzen jarrai daitekeen edo mantentze-lanetara bidali behar den galdetzen dutenean, baita akatsak dituen ekipamendu batek produkzioan egin ditzakeen lanen inguruan ere, kalitatearen eta fidagarritasunaren kalterik gabe.

Arduradun hierarkikoak eskatzen dionean, bere jardueraren gaiei buruzko txosten teknikoak idatziko ditu.

Eskatzen zaionean, prestakuntza-ikastaroak prestatu eta emango ditu departamentuan hasi berri diren teknikarientzat.

Ekipamendu elektroniko eta instalazio berriak iristen direnean, horiek jasotzera joango da eta/edo probak egingo ditu. Lan horietan, baliteke proiektuetako ingeniariaren jarraibideak jasotzea.

Agintzen zaionean, ekipamendu elektroniko berriak muntatu eta/edo doituko ditu eta instalazioak gainbegiratuko ditu. Lan horietan, baliteke proiektuetako ingeniariaren jarraibideak jasotzea.

Bere funtzioak betetzeko esleitzen zaizkion instrumentu, tresna eta lanabesak egoera onean kontserbatzeko ardura izango du.

Enpresaren interesak defendatuko ditu ekoizleen ingeniari-taldeen aurrean diseinu-arazoak dituzten ekipamenduen kasuan eta zehaztapenak betetzen ez dituzten ordezkari piezen kasuan, ekipamenduen mantentze-lan elektronikoekin edo prestakuntza teknikoaren trukearekin lotutako gaietan.

Aldian behin, mantentze-lan elektronikoaren arduradunaren ordezkaria izango da, hura falta denean.

Eskatzen zaionean, jasotako ikastaroei, teknologia berriei edo elektronikarekin edo ekipamenduen mantentze-lanekin lotutako edozer gairi buruzko mintegiak edo ikastaroak prestatu eta emango ditu.

Agintzen zaionean, interfazeak, elementu elektronikoak edo aldatetako egin, gauzatu eta/edo garatuko ditu, ekipamendu elektronikoaren funtzionamendua edo prestazioak hobetzeko. Lan horietan, baliteke proiektuetako ingeniariaren jarraibideak jasotzea.

Mantentze-lan elektronikoaren arduradunak gainbegiratuta, agintzen zaizkion lanak egingo ditu bitarteko erabilgarrien antolamenduari, ordezkari taldeen antolamenduari eta, oro har, departamentuaren antolamenduari lotutako beste edozer alorri buruz.

Mantentze-lan elektronikoaren arduraduna ez dagoenean eta produkzio-ingeniariarekin koordinatuta, konponketak lehenesteko hurrenkera erabakitzeko irizpideak aplikatzeaz arduratuko da. Horretarako, kontuan hartuko du ekipamenduak zer garrantzi duen produktiorako, aberiaren larritasuna, gehiago hondatzeko arriskua eta, oro har, produkzioan eta norbere esperientzia profesionalean oinarritutako irizpide batzuk.

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOETAKO 2. MAILAKO TEKNIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honek jarduera-esparrua ekipamendu elektronikoen mantentze-lanekin lotutako alderdi guztiek osatzen dute.

KARGUPEKO LANGILEAK

Mantentze-lan elektronikotako ofiziala, lan jakin baterako bat esleitzen zaionean.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Mantentze-lan elektronikoen arduraduna

EGITEKO NAGUSIAK

Mantentze-lan elektronikoen arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaion ekipamendu elektronikoen mantentze-lanez eta konponketez arduratuko da eta, beharrezkoa denean, prebentzioko mantentze-lanen planoak egingo ditu.

Bere jardueretarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

Elektronikarekin lotutako teknologia berrien jarraipena egingo du. Horretarako, lanik gabeko hutsarteak baliatuko ditu, eskura dituen bitartekoen bidez prestakuntza hobetzeko.

Zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean, beste lan-zentro, unitate mugikor, bulego eta abarretara joango da.

Beste arloetako arduradunen kontsultetan aholkularitza emango du, ekipamendu jakin bat erabiltzen jarrai daitekeen edo mantentze-lanetara bidali behar den galdetzen dutenean, baita akatsak dituen ekipamendu batek produkzioan egin ditzakeen lanen inguruan ere, kalitatearen eta fidagarritasunaren kalterik gabe.

Arduradun hierarkikoak eskatzen dionean, bere jardueraren gaiei buruzko txosten teknikoak idatziko ditu.

Eskatzen zaionean, prestakuntza-ikastaroak prestatu eta emango ditu departamentuan hasi berri diren teknikarientzat.

Agintzen zaionean, mantentze-lan elektronikotako 1. mailako teknikariari edo proiektuetako ingeniariari laguntza emango die ekipamendu elektroniko berriari edo horrekin lotutako instalazioei eginiko probetan.

Agintzen zaionean, ekipamendu elektroniko berriak muntatu eta/edo doituko ditu eta instalazioak gainbegiratuko ditu. Lan horietan, baliteke mantentze-lan elektronikotako 1. mailako teknikariaren eta proiektuetako ingeniariaren jarraibideak jasotzea.

Bere funtzioak betetzeko esleitzen zaizkion instrumentu, tresna eta lanabesak egoera onean kontserbatzeko ardura izango du.

Mantentze-lan elektronikoen arduradunak gainbegiratuta, agintzen zaizkion lanak egingo ditu bitarteko erabilgarrien antolamenduari, ordezeko parteen antolamenduari eta, oro har, departamentuaren antolamenduarekin lotutako beste edozer alorri buruz.

Mantentze-lan elektronikoen arduraduna ez dagoenean eta produkzio-ingeniariarekin koordinatuta, konponketak lehenesteko hurrenkera erabakitzeko irizpideak aplikatuko ditu. Horretarako, kontuan hartuko du ekipamenduak zer garrantzi duen produkzioarako, aberiaren larritasuna, gehiago hondatzeko arriskua eta, oro har, produkzioan eta norbere esperientzia profesionalean oinarritutako irizpide batzuk.

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOETAKO OFIZIALA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honen jarduera-esparrua ekipamendu elektronikoen mantentze-lanekin lotutako alderdi guztiek osatzen dute eta, lan egitean, bere kategorian eskatutako ezagutzak baliatzen ditu eta horien arabera jokatzen du.

ZUZENeko ARDURADUN HIERARKIKOA

Mantentze-lan elektronikokoetako teknikaria, mantentze-lan elektronikokoetako arduradunak agintzen dionean.

Mantentze-lan elektronikokoetako arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Mantentze-lan elektronikokoetako teknikariari laguntzea esleitzen zaizkion lanetan.

Mantentze-lan elektronikoen arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaion ekipamendu elektronikoen mantentze-lanez eta konponketez arduratuko da.

Elektronikarekin lotutako teknologia berrien jarraipena egingo du. Horretarako, lanik gabeko hutsarteak baliatuko ditu, eskura dituen bitartekoen bidez prestakuntza hobetzeko.

Ekipamendua jaso, muntatu eta doitzarekin lotutako lanak egingo ditu, agintzen zaionean eta horretarako adinako prestakuntza-maila duenean. Horrelakoetan, baliteke proiektuetako ingeniariaren jarraibideak jasotzea.

Bere funtzioak betetzeko esleitzen zaizkion instrumentu, tresna eta lanabesak egoera onean kontserbatzeko ardura izango du.

Bere jardueretarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

Arduradun hierarkikoak eskatzen dionean, bere jardueraren gaiei buruzko txosten teknikoak idatziko ditu.

Mantentze-lan elektronikoen arduradunak gainbegiratuta, agintzen zaizkion lanak egingo ditu bitarteko erabilgarrien antolamenduari, ordezkoko parteentzako antolamenduari eta, oro har, departamentuaren antolamenduari lotutako beste edozer alorri buruz.

Zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean, beste lan-zentro, unitate mugikor, bulego eta abarretara joango da.

MANTENTZE-LAN OROKORREN ARDURADUNA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honen jardueraren ardatza ekipamendu eta instalazio ez-elektronikoen mantentze-lanez arduratzea da. Horrez gain, zerbitzuari eragiten dioten egitekoak gauzatuko ditu, ETBren eta haren sozietateen zentro eta instalazio guztietan.

Eginkizun horiek betetzean eta ordutegi-malgutasunari dagokionez, zuzenean aplikatuko da egungo Hitzarmen Kolektiboaren 18.5 artikulua.

KARGUPEKO LANGILEAK

Mantentze-lan eta instalazioetako teknikariak, mantentze-lan orokorrekoak eta mekanikariak.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Ingeniaritzako arduraduna / Mantentze-lanetako arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Haren ardura da honako hauek mantentzea eta konpontzea: instalazio eta ekipamendu elektrikoak (goi- eta behe-tentsiokoak), elektromekanikoak edo mekanikoak, girotzekoak eta, oro har, instalazio orokor mota guztiak.

Bere jarduera-esparruarekin lotutako ekipamendu eta sistema berriak muntatu, instalatu eta doitzearen arduraduna da.

Bere jarduera-esparruan azpikontrataturako enpresek egindako lanaren jarraipena eta kontrola egitearen eta gainbegiratzearen arduraduna da.

Ekipamendu elektrikoarekin lotutako instalazio berrien (elektrikoak, bideoak edo audioak) gauzatzearen arduraduna da, bai eta muntaketa eta mekanizazioena ere. Baliteke proiektuetako ingeniariaren edo mantentze-lan elektronikoetako teknikariaren jarraibideak jasotzea, bere arduradun hierarkikoak hala adierazten badio.

Ibilgailuen eta unitate elektrogenoen mantentze-lanen arduraduna ere bada. Lan horretarako, mekanikariaren laguntza izango du.

Bitarteko teknikoen, tresnen eta lanabesen egoera onaren, kontserbazioaren eta funtzionamenduaren ardura ere izango du, bai eta mantentze-lan orokorren zerbitzuari esleitutako altzariena ere.

Bere ardurapeko langileen lana planifikatu beharko du, bai eta horien lana gainbegiratu ere.

Bere lan-esparruko jarduerari buruzko txosten teknikoak idatziko ditu, eskatzen zaionean.

Bere funtzioetarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

LANPOSTUKO BALDINTZA BEREZIAK

Lan-zentrora joan beharko da, segurtasuneko langileek abisatuta, bere lan-orduetatik kanpo instalazioei eragiten dien edozer intzidentzia larri gertatzen bada.

Aldian behin, lan-zentrora joan beharko da bere lan-orduetatik kanpo, bere funtzioak betetzeko beharrezkoa denean.

MANTENTZE-LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honek, mantentze-lan orokorretako teknikariaren funtzioak betetzeaz gain, ekipamendu eta instalazioen mantentze-lan elektrikoak ere gauzatzen ditu, EITBren eta haren sozietateen edozer zentro edo instalaziotan.

Eginkizun horiek betetzean eta ordutegi-malgutasunari dagokionez, zuzenean aplikatuko da egungo Hitzarmen Kolektiboaren 18.5 artikulua.

KARGUPEKO LANGILEAK

Laguntzaileak, esleitzen zaizkionean.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Mantentze-lan orokorren arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaizkion ekipamenduen mantentze-lanez eta konponketez arduratuko da.

Bere funtzioetarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

Bere funtzioak betetzeko esleitzen zaizkion instrumentu, tresna, lanabesak, altzariak eta abar egoera onean kontserbatzeko ardura izango du.

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaizkion ekipamendu eta sistema berriak instalatu eta doituko ditu.

Agintzen zaionean, beste enpresa azpikontratatu batzuek eginiko lanak kontrolatu eta gainbegiratu ditu.

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, ekipamendu elektrikoarekin lotutako instalazio berriak (elektrikoak, bideoak edo audioak) gauzatuko ditu, bai eta muntaketak eta mekanizazioak ere. Baliteke proiektuetako ingeniariaren edo mantentze-lan elektronikoetako teknikariaren jarraibideak jasotzea, bere arduradun hierarkikoak hala adierazten badio.

Aldian behin mantentze-lan orokorrekin edo mekanikoekin lotutako beste egiteko batzuk egingo ditu, lanaren beharregatik edo atsedenaldi eta oporraldien plangintzagatik beharrezkoa dela jotzen denean.

Bere lan-esparruko jardueri buruzko txosten teknikoak idatziko ditu, eskatzen zaionean.

Noizbehinka, mantentze-lan orokorren arduraduna ordeztuko du.

LANPOSTUKO BALDINTZA BEREZIAK

Lan-zentrora joan beharko da, segurtasuneko langileek abisatuta, bere lan-orduetatik kanpo instalazioei eragiten dien edozer intzidentzia larri gertatzen bada.

Aldian behin, lan-zentrora joan beharko da bere lan-orduetatik kanpo, bere funtzioak betetzeko beharrezkoa denean.

MANTENTZE-LAN OROKORRETAKO TEKNIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honek ekipamendu eta instalazioen mantentze-lan orokorrak gauzatzen ditu, EITBren eta haren sozietateen edozer zentro edo instalaziotan.

KARGUPEKO LANGILEAK

Laguntzaileak, esleitzen zaizkionean.

ZUZENEKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Mantentze-lan orokorren arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaizkion ekipamenduen mantentze-lanez eta konponketez arduratuko da.

Bere funtzioetarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

Bere funtzioak betetzeko esleitzen zaizkion instrumentu, tresna, lanabesak, altzariak eta abar egoera onean kontserbatzeko ardura izango du.

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaizkion ekipamendu eta sistema berriak instalatu eta doituko ditu.

Agintzen zaionean, beste enpresa azpikontratatu batzuek eginiko lanak kontrolatu eta gainbegiratuko ditu.

Mantentze-lan orokorretako arduradunak gainbegiratuta, agintzen zaizkion lan osagarriak gauzatuz kolaboratuko du, ekipamendu elektronikoarekin lotutako instalazio, muntaketa eta mekanizazioetan. Baliteke proiektuetako ingeniariaren, mantentze-lan elektronikoetako teknikari baten edo mantentze-lan eta instalazioetako teknikari baten jarraibideak jasotzea.

Aldian behin mantentze-lan orokorrekin edo mekanikoekin lotutako beste egiteko batzuk egingo ditu, lanaren beharreatatik edo atsedenaldira eta oporraldien plangintzategatik beharrezkoa dela jotzen denean.

Bere lan-esparruko jardueri buruzko txosten teknikoak idatziko ditu, eskatzen zaionean.

LANPOSTUKO BALDINTZA BEREZIAK

Lan-zentrorra joan beharko da, segurtasuneko langileek abisatuta, bere lan-orduetatik kanpo instalazioei eragiten dien edozer intzidentzia larri gertatzen bada.

Aldian behin, lan-zentrorra joan beharko da bere lan-orduetatik kanpo, egiteko dauden lanengatik beharrezkoa denean.

DOITASUNEZKO MEKANIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Profesional honek ibilgailuen, unitate elektrogenoen eta instalazioen mekanikari gisa lan egiten du, ETBren eta haren sozietateen edozer zentro edo instalaziotan.

KARGUPEKO LANGILEAK

Laguntzaileak, esleitzen zaizkionean.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Mantentze-lan orokorren arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, esleitzen zaizkion ETBren eta haren sozietateen ibilgailuen, unitate elektrogenoen, instalazioen eta ekipamenduen mantentze-lanak eta konponketak egingo ditu. Era berean, ekipamendu elektronikoarekin lotutako konponketak, instalazioak, muntaketak eta mekanizazioak ere gauzatuko ditu. Lan horietan, baliteke proiektuetako ingeniariaren edo teknikari baten jarraibideak jasotzea.

Aldian behin mantentze-lan orokorrekin edo elektrikoekin lotutako beste egiteko batzuk egingo ditu, lanaren beharregatik edo atsedenaldi eta oporraldien plangintzagatik beharrezkoa dela jotzen denean.

Bere funtzioetarako beharrezko instrumentuak, tresnak eta lanabesak erabiliko ditu.

Tailer mekanikoa eta bere funtzioak betetzeko esleitzen zaizkion instrumentuak, tresnak, lanabesak, altzariak eta abar egoera onean kontserbatzeko ardura izango du.

Mantentze-lan orokorren arduradunak gainbegiratuta, bere jarduera-esparruarekin lotuta esleitzen zaizkion ekipamendu eta sistema berriak instalatu eta doituko ditu.

Agintzen zaionean, beste enpresa azpikontratatu batzuek eginiko lanak kontrolatu eta gainbegiratuko ditu.

Bere lan-esparruko jardueri buruzko txosten teknikoak idatziko ditu, eskatzen zaionean.

LANPOSTUKO BALDINTZA BEREZIAK

Lan-zentrora joan beharko da, segurtasuneko langileek abisatuta, bere lan-orduetatik kanpo instalazioei eragiten dien edozer intzidentzia larri gertatzen bada.

Aldian behin, lan-zentrora joan beharko da bere lan-orduetatik kanpo, egiteko dauden lanengatik beharrezkoa denean.

PRODUKZIOKO INGENIARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Bere esparruari esleitutako bitarteko tekniko eta pertsonal guztien ustiapena eta koordinazioa zuzenak direla bermatu behar duen arduradun tekniko nagusia.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Bere esparruan lan egiten duten teknikari guztiak.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Plangintzako arduraduna.

EGITEKO NAGUSIAK

Harreman estuan egon beharko du zenbait departamenturekin (programak, produkzioa, mantentze-lanak, sareak, etab.) planteatzen diren produkzioak egiteko aukerak aztertzeko eta, hala erabakitzen denean, gauzatzeko.

Plangintza-departamentutik edo, bestela, produkzio-departamentutik jasoko du ebatzi beharreko arazoei eta esleitutako langileei buruzko informazioa. Lanak amaitutakoan, plangintza-departamentuari emango dio horren berri.

Bere departamentuari esleitutako material teknikoa erabiltzeko egoera egokian izatearen arduradun nagusia da. Era berean, lanak egiteko material horren mugimenduaren ardura ere berea izango da, biltegia erabiliz.

Ezustekorik dagoenean, horiek ebazteko egoki iruditzen zaizkion ekintzak gauzatu dituzte (konponbide tekniko alternatiboak, dagokion arduradunari eskatzea alor jakin bati langileak edo ekipamenduak esleitzeko, etab.).

Unitate mugikorretan, zehazki, honako hauek daude bere arduren artean: aurretiazko ikuskapenaren txosten teknikoa idaztea, muntaketa eta desmuntaketa antolatzea txosten horren arabera eta ekipamendu propio zein osagarriak konektatzea eta lanerako prest jartzea.

Gainbegiratze-sailarekin harremanetan egongo da ekipamenduen bilakaera eta egoeraren eta material-beharren berri emateko, bai eta produkzio-sistemak eta ekipamenduarekin erabilitako operazio- eta lan-metodoak optimizatzeko, aldaketak proposatzeko eta, dagokionean, instalazioak egiteko.

Eskatzen zaizkion txosten periodiko edo puntualak idatziko dituzte plangintza- edo gainbegiratze-departamentuentzat, eta lana egiteko ematen zaizkion parteak beteko dituzte.

Beste alor bateko lanak ere bere gain hartu ahal izango ditu, plangintza-departamentuak hala erabakita.

Plangintza- eta gainbegiratze-departamentuek erabakiko dute zer ekipamendu esleitzen zaion zer alorri, eta beharrezkotzat jotako aldaketa eta birbanaketa guztiak egingo dira.

Ekipamendu teknikoa erabiltzeko moduari buruzko aholkuak emango dizkie horren erabiltzaileei.

Mantentze-lanen departamentuari ekipamenduak hautemandako mantentze-lanetako akatsen berri emango dio, baldin eta beharrezkoa bada departamentu horrek esku hartzea. Ekipamenduen prebentzioko mantentze-lanen ardura hartuko du, mantentze-lanetarako definitutako mailaren arabera.

Arazo edo ezusteko batek bi alorri edo gehiagori eragiten badie eta zuzeneko arduradun hierarkikoa ez badago, emisioaren alorreko ardura duen produkzioko ingeniaria arduratuko da beharrezko koordinazioa antolatzeaz eta egin beharreko konponbideak erabakiko ditu, baldin eta aldez aurretik ez bada koordinazio horren arduradun bat izendatu.

AUDIO-KOORDINATZAILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Audioaren arloko ustiapena optimizatzeko asmoz, profesional hau arduratuko da sistemak eta lan-metodoak aztertzeaz eta hautemandako beharren jarraipena egiteaz.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Funtzionala, audio-teknikari eta soinu-ekipamenduaren erabiltzaileei dagokienez.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Gainbegirale teknikoa.

EGITEKO NAGUSIAK

Audio-departamentua koordinatzea, irizpideak eta lan egiteko moduan bateratuz.

Gainbegiratze-departamentuaren jarraibideen arabera, intzidentzia teknikoen jarraipena egingo du, bai eta soinuak ustiapen-katean duen kalitate eta nolakotasunarena ere, zuzenketa posibleak bilatzeko eta sistema optimizatzeko. Horretarako, harreman funtzionalak izango ditu inplikaturako departamentuekin.

Soinu-material erabilgarriaren izakinak eta egoera kontrolatuko ditu.

Kanpoko bitartekoen kontratazioan aholkularitza emango du.

Erosketak proposatuko ditu eta material berria hartzeko prozesuan parte hartuko du.

Eskatzen zaizkion sektoreari buruzko txosten guztiak idatziko ditu.

Soinuaren inguruko nazioarteko arauak aplikatzen direla zainduko du, hala ustiapen-kate osoan nola beste enpresa batzuekin eginiko trukeetan.

Soinuaren arloan, ikastaroak antolatuko ditu, bai eta langileen prestakuntza eta hautaketa hobetzera bideratutako jarduerak ere.

Audio-teknikariaren funtzioak bete ahal izango ditu, ordezkapenak direla eta ezinbestekoa denean.

AUDIO-TEKNIKARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Soinu-sistemak eta -ekipamenduak definitu, instalatu eta erabiltzearen arduradun nagusia (programa, entzungailua, sonorizazioa...)

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Audioko laguntzailea.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Produkzioko ingeniaria
Programaren errealizadorea / arduraduna
Audio-koordinatzailea

EGITEKO NAGUSIAK

Produkzio bakoitzean erabili beharreko soinu-sistemak aztertu eta definitzearen arduraduna, bakoitzak dituen beharren arabera.

Haren ardura da produkzio bakoitzean erabiliko diren soinu-ekipamendu, osagarri eta periferiko guztiak instalatzea, alderdi guztiak barne hartuta (garraiatzea, muntatzea, desmuntatzea, etab.), programaren soinua egokia izan dadin, bere sormenaren arabera eta errealizadorearen jarraibideak beteta.

Laneko ekipamendua kontrolatzeaz eta haren egoera eta kontserbazioa zaintzeaz arduratuko da, bai eta horren funtzionamendu egokia bermatzeaz ere. Horretarako, beharrezkoak iruditzen zaizkion jarduerak egingo ditu, produkzioko ingeniariak gainbegiratuta.

Audioko koordinatzailea ez dagoenean eta/edo hark emandako jarraibideen arabera jokatzuz, soinuaren inguruko laguntza eta aholkularitza teknikoa emango die eskatzen duten alor guztiei, arduradun hierarkikoak gainbegiratuta.

Soinuaren alorrean egokiak iruditzen zaizkion lan-metodoak jakinarazi eta proposatuko dizkio produkzioko ingeniariari, edozer alorretako lanen errendimendua optimizatze aldera.

Hautematen duen edozer akats, behar eta abarren berri ere emango dio, eta ekipamenduen prebentzioko mantentze-lanak egingo ditu, produkzioko ingeniariak gainbegiratuta.

Audioko laguntzailea bere aginduetara izango du, bere lanetan laguntzeko esleitzen zaionean.

AUDIO LAGUNTZAILEA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Esleitzen zaizkion audio-sistemen instalazioaren arduraduna izango da, alderdi guztietan.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Audio-teknikaria.

EGITEKO NAGUSIAK

Audio-teknikariak gainbegiratuta, honako lan hauen arduraduna izango da:

- Esleitzen zaizkion soinu-sistemetako ekipamendua, berezko materiala eta elementu osagarriak instalatzea, horren alderdi guztiak barne hartuta (garraioa, muntaketa, desmuntaketa, kableak eta konektoreak prestatzea, etab.).
- Dena delako materiala kontrolatzea eta horren egoera eta kontserbazioa zaintzea.
- Soinu-ekipamendua maneiitzea.

1. MAILAKO KAMERARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Esleitzen zaizkion mota guztietako kamerak eta osagarriak maneiatzea.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Funtzionalki, kategoria apalagoko teknikariak.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Produkzioko ingeniaria
Programaren errealizadorea / arduraduna

EGITEKO NAGUSIAK

Irudiaren profesional honen ardura da esleitzen zaizkion era guztietako kamerak, osagarriak eta horiekin loturiko materialak maneiatzea (kamera-osagarriak, argiztapen-gailu eramangarriak, dollya, garabia, travellinga), bertan sartuta aurrekoekin lotura izan dezaketenak teknologia edo garapen berriak.

Esleitu zaion materiala instalatzearen arduraduna izango da, horren alderdi guztietan (garraioa, muntaketa, desmuntaketa, materialaren kontrola, egoeraren eta kontserbazioaren zaintza, etab.).

Argiztazailearen jarraibideen arabera eta hura ez dagoenean, produkzio baten argiztapenaren alderdi guztiez arduratu daiteke (exekuzioa, definizioa, diseinua, instalazioa, materiala zaintzea, kontrola maneiatzea, etab.).

Estudioetan esleitzen zaizkion 2. mailako kamerariak haren ardurapean egongo dira, bai eta kasuan kasuko argi-teknikaria ere.

Errealizadorearen edo errealizazioko laguntzailearen jarraibideak jasoko ditu programaren errealizazioarekin lotutako alderdietan edo, dagokionean, programaren arduradunarenak. Horiek ez daudenean edo jarraibiderik jaso ez duenean, egitekoa bere irizpide artistiko eta pertsonalen arabera izango da.

Ekipamendu arinarekin filmatutako lanen edizioan edo postprodukzioan parte hartu ahal izango du, beharrezkoa denean.

Kameren kontrolean parte hartuko du kontzeptu estetikoaren arabera, produkzioko ingeniariarekin edo horren ardura duen langilearekin batera.

Ekipamenduen funtzionamenduak akatsen bat edo intereseko xehetasun edo beharrak hautematen baditu, horien berri emango die zuzeneko arduradun hierarkikoari eta xede

horretarako ezarritako parteak beteko ditu eta zehaztutako metodoen bidez bideratuko ditu. Era berean, irudiaren eta/edo argiztapenaren arloan eginiko lanaren berri emango dio programaren arduradunari.

Beharrezkoa bada, 2. mailako kamerariaren funtzioak egin ahal izango ditu.

2. MAILAKO KAMERARIA**DESKRIBAPEN OROKORRA**

Esleitzen zaizkion kamerak maneiatzear arduratuko da.

Eginkizun horiek betetzean Hitzarmen Kolektiboan, 18.1 artikuluan, ezartzen da kategoriaren berezko eginkizuna.

KARGUPEKO LANGILEAK

Funtzionalki, kategoria apalagoko teknikariak.

ZUZENKO ARDURADUN HIERARKIKOA

Produkzioko ingeniaria
Programaren errealizadorea / arduraduna

EGITEKO NAGUSIAK

Edozer motatako kamerak, osagarriak eta horiekin lotutako materiala maneiatzear arduratuko da, oro har estudioetan. Gainera, horien egoera, kontserbazioa eta kontrola zainduko ditu, garapen eta teknologia berriei esker aurrekoekin lotura izan dezaketen ekipamenduak barne (garabiak, travellinga eta erabilera espezializatuko aparatuak izan ezik).

Esleitu zaion materiala instalatzearen arduraduna izango da, horren alderdi guztietan (garraioa, muntaketa, desmuntaketa, materialaren kontrola, egoeraren eta kontserbazioaren zaintza, etab.).

